



AGUR BERAZUBIKO «EGONGELARI»

Tolosan dagoen 66 Tabernako jabeek «beste gauza batzuk egiteko garaia» dela diote eta taberna utzi egingo dute »4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-03-20

VIIURTEA 1.658.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Nagusien mailan 22-14 gailendu ziren Aurrera-Saiazekoak; irudian, Santesteban pilotari jotzen. N. URBIZU

VI. Berria Txapelketaren finalean, Aurrera-Saiaz

TOLOSALDEA Zugarralderen aurka lortu zuen atzo Beotibarren finalerako txartela; bigarren finalerdia bihar jokatu du Zazpi-Isturrik »7

Kirola eta jaia uztartuz ekin diete aurtengo Gazte Festei

BERASTEGI Atzo izan zen lehen eguna; biharko ekitaldi nagusia Hesian taldearen kontzertua da »6

Roberto Jauregiren omenezko irudia egin du Orbegozok

TOLOSA Artistak herriko pertsonaiei buruz eginiko 2. margolana da; Usabalen jarri dute »7

Mozambique, Peru eta Argentinako irudiak bildu dituzte

ALEGIA Jubilatuen tabernan hiru herrialdeen argazkiak daude ikusgai, hilabete bukaerara arte »5




Ikusgai dago argazki hau. HITZA

GABINO ZUBELDIA
IRAKASLEA

«Herrietako musikariak ikastea ere ongi dago»

ABALTZISKETA Alegialdeko musikariak bildu ditu »3



J. SAIZAR



HITZAK harpidedunentzat
4 sarrerak pare ditu

BertsoJazza

Martxoak 28 • Larunbata
22:00etan • Tolosako Leidorren

HITZAK harpidedunentzat
2 sarrerak ditu

BRUESA GBC Kalise Gran Canaria

Igandea • Martxoak 22
12:30ean • Donostiako Illunben



sarrerak



TXOKOA hitza

sarrerak eskuratzeko deitu: 943-65 56 95 harpidedun kodea eskura duzula

Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldeko-hitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Aupa Piratak!

Zorionak, Pirritx, Porrotx, Marimotots eta talde guztiari!!!! Oraindik ikusi gabe geneukan ikuskizun berria... benetan zoragarria izan zen. Oso ondo pasa genuen; ze umorea, ze kanta politik eta zer nolako koloretsua izan zen dena. Askio balio duzue eta segi horrela. Artista batzuk zarete.

Eta Galtzaundiri ere zorionak. Eserlekuak zenbakiak izanda, askoz ere lasaia ibili ginen denak.

Eskerrikasko denei!!!

Ainhoa.

Espaloia oraindik konpondu gabe

Sputnik atzealdean dagoen espaloia are egoera penagarria eta oso arriskutsua da. 6. zenbakieran altxer dago hori eta bizilagunek behin baino gehiagotan kezatu gara horren inguruan. Penagarria eta lotsagarria iruditzen zait. Badi-rudi auzo honetan bigarren mailakoak garelako, beste zonalde batzuetan obratan ikusi baititut gauza hauek konpontzeko. Zertara ari dira itxaroten, baten batek hezurren bat puskatzera akaso? Ea

behingoz konponbidea jartzen dioten honi.

Tolosar bat.

San Jose eguna ospatu dugu Belauntzan

San Jose Eguna ospatu dugu Belauntzan. Ermitan meza entzun ondoren, txaranga baten musikaz lagunduta herrigune aldera inguratu ziren herritarrak.

Bertan Martintxo Etxea barrutik ikusteko aukera izan zuten: uval jabetzakoa den eraikuntza honen goikaldean bi etxebizitza daude, eta behealdean Belauntzarrentzako topagune bat sortu nahi da: komonak egokitu eta sukalde bat jartzeko asmoa dago, gimnasia egiteko txoko bat eta egongela bat du ere, baina herritarren artean erabakiko da gune berri honi zein erabilpen eman behar zaion.

Jai egunari amaiera emateko, hamaiketako ospatu zen herriko taberna-jatetxean.

Belauntzako herria.

Languarren ez al dago zaborrontzirik?

Oso gustura joaten naiz nire fami-

liara Languarrera. Atzo ere halaxe egin genuen baina konturatu ginen bertan ez dagoela zaborrontzirik. Bertan bazkaldu genuen eta pena bat da autoan eraman behar izan genituelako zaborrak. Komeniko litzateke zaborrontzi batzuk jartzea bertan.

Axun.

B Blogteka**Inauteririk pasa ondoren, Musika Banda Usurbilera**

Gurasoen Euskara Batzordeak, Pastoralzako lan taldearekin batera Peñagarikano, Bixente eta Unai Muñoa bertsoariekin guraso eta irakasleentzat antolatatu duen bertso afari solidarioa gonbidatu nahi zaituzte.

Era berean, euskararen erabile-
rak denoi eskaintzen digun erron-
kari eustea eskertu nahi dizuegu.

Bertso-afariko Eguna, martxoaren 27an.

Lekua: Emendek A.K. Elkarte (Tolosa).

Ordua: 21.00etan.

20 euro, prezioaren zati bat elkartasun proiektuak bultzatzeko izango da.

Txartelak: Hirukideko idazkaritzetan egongo dira salgai martxoaren 24ra arte (tokia mugatua izango da).

Hirukide ikastetxea

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/hirukide>

Martxoak 8 ikastolan

Ostiralean, nazioarteko emakumeen eguna ospatu genuen DBH eta BATXeko ikasle eta irakasleok. Pasioloak apainduta eta guk geok zerbitu morea soinean genuela. Ez ginen emakumeok soilik izan gainera, gero eta gehiago dira eta morez jantzita ikusten ditugun gizonetakoak. BATX leko ZTGko ikasleek bidez erakutsi zizkiguten egunaren nondik norakoak eta

Usabalgo dutzak hotzegiak

Usabalgo erabiltzaile naizen bezala, lotsagarria iruditzen zait horrelako kiroldegi puskan arratsalde parterako dutzatzea ezinezkoa izatea, ura izoztuta egoten delako.

Eider.

emakumeen egunaren ospatzea/aldarrikatzearen zergaitiak. Bestalde Batx 1 eta 2ko ikasleek irratia bikaina eskaini zieten DBH 3 eta 4koei gai bera aintzakotzat hartuta. DBH4koek bokadiloak saltzen aritu ziren jo eta su eta 12ak aldera, dekoraziorako erabili ziren posterren lehiaketa burutu genuen. Lastima sari gehiago ez izatea, guztion lanak eta merezi izan baitzuen saria. Bai potoloa gainera! Eta bukatzeko gizonetako irakasle emakumezkoie eskainitako bazkari goxoa. Ikustekoak ziren denak pajarita jantzita gu erreginela baikinaren zerbitzatzen. Hunkitzeko moduko bertsoak ere bota zizkiguten oholtza gainetik. Nork eutsi malkoei?

Martxoaren 8an, emakume langileen nazioarteko egunean, Las Korain ikastolako 33 lagunek hartu genuen parte Donostiako LILATON lasterketan. Ekimen honek gure ikastolarekin bat egiten duten irakasle, ikasle, ikasle ohi eta gurasoen partehartzea gero eta haundiagoa da. Benetan txalotzeko lana neskoi!

Batx 2ko Mireia bere kategorian 3. izan zen eta talde bezela eresaria lortu genuen. Eta nola ez, ikusleak ezin ahaztu, Donostiako kaleetan zehar baitzeuden gu animatzaera joandako ikasle eta gurasoak, emakume nahiz gizonetakoak, beren txalo zaparrada eta ohiekin gu animatu nahian. Mila esker guttiori!

Laskorain ikastola

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/laskorain>

L Laburrak**Zinema eskaintza zabaldu asteburuan Leidor aretoan**

TOLOSA ● Leidor aretoak kartelera aukera zabaldu eskainiko du biharkoan: *City of Ember, en busca de la luz* 'haurrekontzako' filma emango dute, 17:00etan. Hurrengo saioetan, 19:30ean eta 22:30ean, berriz, *El curioso caso de Benjamin Button* filma emango dute. Etzi ere izango da zer ikusia: 19:30ean eta 22:00etan *La duda* filma emango dute.

Baztanera irteera antolatu du Alkartasuna biltokiak

ANOETA ● Alkartasuna biltokiak Baztanera bidaiari antolatu du apirilaren 16rako, ostegunarekin. Bertan, kobazuloak, likore-fabrika, gaztandegia eta txokolategia bisitatu dituzte eta ondoren bazkaria egingo dute. Izena dagoeneko eman daiteke, elkartearen bertan. Bazkariak eta autobusa ordainduko dira 28 euroren truke (30 euro bazkide ez denarentzat).

Sagardotegira joateko izena emateko aukera

ALBITZUR ● Hilaren 28an, larunbatarekin, Adunako Aburuz sagardotegira irteera antolatu dute Albitzurren. Autobusez joango dira sagardotegira, eta ondoren nahi duenak Hernanira joateko aukera izango du. Izena dagoeneko eman daiteke udaletxean bertan eta Hernanira joan nahi den edo ez zehaztu beharko da. Afaria eta autobusarengatik 33 euro ordaindu beharko da.

Aizkardiren 41. mendi ibilidien izen-ematea zabalik

VILLABONA ● Aizkardi mendi elkar-teak 41. Ibilaldia antolatu du hilaren 29rako, iganderako, Andatza, Adarra eta Leitzaran inguruak zeharkatuz. Izena dagoeneko eman daiteke elkartearen bertan, 649 717 182 telefono zenbakian edota ibilaldia@aizkardi.com helbide elektronikoan. Bi ibilbide antolatu dituzte: ibilbide luzea (46 km, 10 ordu, 06:30ean abiatuta) eta motza (22 km, 5 ordu, 8:00etan abiatuta). Antolatzaileek gogorarazi dute egun horretan ordu aldaketa egongo dela.



San Jose Eguna ospatu zuten atzo Belauntzan. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

E Elkarrizketa

Abaltzisketa »

Alegialdeko musikariak webgune batean bildu ditu Gabino Zubeldia irakasleak; lana inguru horretako ikastetxeetako ikasleei zuzenduta dago.

JOXEMI SAIZAR

Gabino Zubeldia Gaztañaga (Abaltzisketa, 1949) irakasleak, ikasturte bateko ikasketa lizentzia bati esker, bere inguruko herrietako musikarien biografiak, argazkiak, doinuak eta bideoak bildu eta webgune batean (www.herrieta-komunikariak.com) zintzilikatu ditu. Abaltzisketa, Alegia, Amezketak, Bedaio, Gaintza, Orendain, Ugarte eta Zaldibiako konposatzaileak, organojoleak, txistulariak, trikitilariak eta bestelakoak jaso ditu. Erretiratu berri den irakasle honen lana inguru horretako ikastetxeetako ikasleei dago zuzendua. Ea behar bezalako probetxurik ateratzen dioten.

Zein lotura duzu musikarekin?

Abaltzisketako apaiza izan zen Joxe Eizmendi alegiarrak bultzatu zidan musika ikastera, eta 11-12 urterekin Tolosan Ignacio Mokoarekin ikasi nuen zerbait. Harmoniuma jo nuen Abaltzisketako elizan ezkondu arte eta orain noizean behin [Hasieran Usurbilen bizitu zen eta egun Añorgan bizi da]. Semeak kontserbatoriora iritsi zirenean berreskuratu nuen eta piano ikasketak egin nituen, 6. maila arte, eta harmonia. Alegiako Txintxarri abesbatzan abesten dut. Musika beti gustatu izan zait.

Eta nondik sortu zitzaizun lan honen ideia?


Abaltzisketan musikariak izan zirela banekien eta bildu nahi nituen. Irakaskuntzan Beethoven, Bach eta horiek ikastea ondo dago, baina herriko musikariak ere bai. Horregatik egin dut lan hau eta bildu ezear ahaztuta geratzen direlako. IRALEn ikasten ari nintzela hasi nintzen lantxo bat eginez, eta gero ikasketa lizentzia bat eskatu nuen. Aurreko ikastutean honetan aritu nintzen erabat eta irailan entregatu nuen lana.

Nola egin duzu lana?

Hasteko, herrikoetako zenbait musikariri buruzko (organojoleak, txistulariak) informazioa udal eta eliz artxiboetan bilatu dut. Orendainen adibidez, organojolea, sakristaia eta maisua Udalak jartzen zituen garai batean. Artxi-boez gain, musikari horien familiengana ere jo dut informazio eske. Beste musikarien kasuan, beraien senitarteok emandako informazio erabili dut.

Eta nola egin duzu aukeraketa?

Nire herrian, Abaltzisketa, hasi eta inguruko herrietan jarraitu dut, esperean jarraituz ibilbidea. Espero



JOXEMI SAIZAR

«Klasikoez aparte, herrietako musikariak ere ikastea ondo dago»

ditu jarraitzea hemendik aurrera. Bedaio eta Alegiari buruzko datu berriak badituz sartzeko, esate baterako. Aldaban, Altzon, Baliarriaren, Araman (talde gregorianista bat izan zela badakit) jarraitzea badago. Herri txikietan errazagoa izan da lana burutzea, baina Alegia eta Zaldibia bezalako handiagotan bukaezina da, zenbat eta gehiago galdetu, orduan eta jende gehiago ateratzen baita. Zalantzak izan ditut aukeratzeko garaian, baina azkenean bildutako guztiak sartu ditut.

Nola dago antolatuta zure lanaren emaitza?

Sarrera bat dago lehendabizi eta gero herriko dago saikatuta informazio guztia. Herri bakoitzean konposatzaileak, organojoleak, soinu-joleak, txistulariak, trikitilariak, kantariak eta bestelakoak bereizi ditut. Biografiak aparte, argazkiak (posible izan den kasuetan), doinuak (partiturak eta audioak) eta bideoak (batzuk ETBtik, Joxe Mari Otermiñi esker lortuak) ere badaude. Power point formatoan dago aurkeztuta ikasleengan pentsatuta, atseginagoa izan dadin. Eta pdf formatoan informazioa zabalagoa dago.

Bildutako protagonista horien guztien artean, zein nabarmen-duko zenuke?

Sorpresa atseginak izan ditut. Nire herrian adibidez, organoa izan zen, Usurbildik Luis Valerio Aranguren ekarria. Gero apaiz batek saldu egin zuen. Eta organojoleak izan ziren bera, bere semea, biloba... Jose Mari Ibarbia frantziskotarra ere oso organojole ona izan zen. Gainera abesbatzak sortu zituen Oliten (Erriberri-Nafarroa) eta Santanderean, organo-kontzertuak han eta hemen emateaz gain. Alegian egon zen Lukas Guri-di konpositorea eta parrokiako abesbatzaren zuzendaria ere aipatu behar da, Iguain konpositore-familia (aita eta hiru seme). Amezketako Martin Gorostidi konpositorea, Pello Zabala bera eta

Victoriano eta Prudenzi Balerdi anaia, Alegiako Andoni Zubillaga soinu-jolea (nazioarte mailan saritua izan dena), Zaldibiako Bruno Imaz eta Jose Antonio Erauskin konposatzaileak, Amezketako Jazpana, Bedaio Amundarain eta Sarasola txistulariak, Alegiako Intxausti aita-semeak... lan honetan bildu diren beste guztiak baztertu gabe.

Eta doinu aldetik?

Ogi zerutik eliz doinu ezaguna Alegian egon zen Toribio Iriondok egin zuen. Eta Zaldibiko plazan Oskorrin doinu ezaguna ere sartu dut, besteak beste.

Bi gauzak konturatu naiz: emakume gutxi dago eta apaiz asko.

Normala da. Garai hartan organo edo piano ikasketak apaizek bakarrik egin zitzaizkion. Beste instrumentuen kasuan (trikitixa, soinua, txistua) ez, gurasoengandik seme-engan pasatzen zen. Eta emakumei buruz, garai batean ezpaintedako soinu-jole emakumeak izan zen Orendainen eta Zaldibin ere bai.

'Ogi zerutik' eliz doinu ezaguna Alegian egon zen Toribio Iriondo apaizak egin zuen

Herri txikietan errazagoa izan da, baina Alegia eta Zaldibia bezalakoetan bukaezina da

'Musikaren historian ez da asko izango, baina herrietako historian bai', esan zidan batek

Panderojoleak ere izan dira beti. Eta gaur egun gero eta emakume musikari gehiago daude.

Beste berezitasunik?

Abaltzisketako Txantxo dantzaren eta Amezketako Talai dantzaren doinuak jaso ditut, bideo txiki batekin. Lehen Zaldibian eta Gaintzan ere egiten ziren dantza horiek. Abesbatza bakarra Alegiakoa da. Musika banda ere izan zen garai batean. Bertsolariak ez ditut jaso lan honetan.

Mereziz izan al du?

Musikari batek esan zidan: «Musikaren historian lan hau ez da asko izango, baina herrietako historian bai». Gustura gelditu naiz. Eta eskerrak eman nahi dizkiet laguntzaileei.

Eta orain zer nahi zenuke gertatzea?

Lan hau ikastetxeek erabiltzeko egin nuen. Hezkuntza Sailak horrelako lanak webgune berezi batean jarri nahi ditu, baina oraindik ez du webgune hori osatu. Musikariak eta informazioa eman zidan jendea ikusteko zain zeuden. Internetez ideiarik ere ez nuen, baina asko ikasi dut eta Abaltzisketako Logikaline enpresari esker jarrita dago jada Interneten. Hemendik aurrera osatzen joango naiz eta espero dut ikastetxeek eta jendeak orokorrean erabiltzea.

@ Elkarrizketa digitalak. Azken hilabeteetan eskualdeko hainbat pertsonaia igaro dira HITZ Aren egoitzatik zuzenean irakurleen galderak erantzuteko, elkarrizketa digitalean. Azken gonbidatua Kike Amonarri telebista aurkezlea, umorista eta soziolin-guista izan zen. Haren elkarrizketa ikusgai dago gure webgunean, baita aurretik egin direnak ere: Gari Uranga, Jokin Bildarratz, Hektor Espin eta Antton Izagirre, Edure Pasaban eta Asier Izagirre eta Garbiñe Biurrun.

www.tolosaldekohitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

REBEKA CALVO

Despistatu samar zeuden Koldo Butron eta Mari Luz Esteban goiz hartan. 66 Tabernan egin genuen hitzordua, baina sartzerakoan atea giltzaz ixtea ahaztu zitzaizen eta bat baino gehiago saiatu zen tabernara sartzen. Telefonoa ere jo eta jo aritu zen; «bai? bazkaltzeko ogitartekoak? taberna itxi dugu jada! berrriak etortzen direnean agian...».

Koldo Butronentzat 66 bere etxea da; 1966ko ekainaren 6an ireki zuten bere gurasoek taberna lehenengo, ondoren 1975 eta 1985 urteren artean beste jabe batzuek izan zuten, baina orduztik aurrera amak eta seme-alabek hartu zuten berriz ere taberna zuzentzeko ardura. «Gurasoek eta amaren anai-arrrek hartu zuten taberna 1966. urtean. Ondoren, hamar urtetan, beste pertsona batzuek izan zuten. Berriz ere hartu genuenean nik 15 urte nituen, oso alai hartu nuen tannen aritzeko erabakia, ikasteko gogorik ere ez neukan eta lanean hasi nahi nuen. Orduztik denbora asko pasa da eta dena asko aldatu da; lana egiteko modua, bezeroak...», argitu du Butronek.

Taberna ere aldatu da, izan ere, orain zortzi bat urte berritzea erabaki zuten eta «hasieran beldurra» bazuten ere dekorazio eta karta aldatuketek ez zioten kalterik egin, «alderantziz», jende asko gerturatu izan da 66ra otorduetan.

Aldatzeko garaia

Tabernari ohiak urte mordoa eman ditu ostalaritzan lanean eta orain beste gauza batzuk egiteko unea ere iritsi zaiola dio, «pena ematen dit, ez pentsa, baina beste gauza batzuk egin behar ditut». Ama ere «triste samar» dagoela esan du. Josefa Azpirozek urteak eman zituen tabernan lanean, bai barran bertan, bai sukaldean eta baita hasierako urteetan tabakoa eta horrelakoak saltzeko zeukazten beste txokoa ere.

«Nahiko triste dago ama, azken urteetan lanean ez zeukan inongo erantzunkizunik, baina beti etortzen zen zerbaitegan laguntzera. Lan asko egin izan du tabernan beti eta urte mordoa eman ditu tabernari nolabait lotuta, familia bizia ere kendu diguna, hala ere. Familia bizia tabernan egin dugu eta hori ere ez da ona, baina hauxe izan da gure bizimodua», gogoratu du Butronek.

Lehen urte haietako Tolosak ez du gaur egungoarekin alderik; bizimodua, herriko merkatal gunea... Dena aldatu da, baina 66 Tabernak ez du betiko kutsu herrikoia galdu inoiz, poteatzaileak desagertzen joan badira ere, urteetan taberna jendez lepo egotea ahalbidetu zuen koadrila haiek.

«Lehen batez ere poteatzen zuten gizon taldeak etortzen ziren. Nik uste orain dela urte batzuk geneukan denbora libre gehiena tabernetan ematen genuela, aisialdia tabernetan ematen genuen, baina orain mila gauza daude; eskiatu, autoa hartu eta kanpora ater...»



Bertan lanean aritu direnek tabernan egunero Inauteriak ziruditelako diote. Ez zaio inoiz lanik falta Berazubi Auzoko 66 Tabernari, baina aldaketa garaia iritsi da eta jabeek beste gauza batzuk ere egin nahi dituzte.

Agur Berazubiko «egongelari»



Koldo Butron izan da taberna berritu zutenetik lanean aritu den senidea, R.C.

ditugu eta pentsatu egin behar dugu zer egin. Taberna honetan gutxi gorabehera martxa bera egon da beti; goizetako poteoak, bazkalosteko kafeak, partidak... Ez dugu filosofia eta lan egiteko era moldatzerik nahi. Txinatarrak ere gerturatu ziren alokatzeko, baina txinatarrak alokatzen badiet Tolosatik alde egin beharko dut». Izan ere, azken asteetan kalean zehar ibiltzea ere nahiko astuna egiten ari zaie, «uneoro norbait gerturatu eta tabernaren inguruan galdeetzen didate; alokatu dudana jada, zeini, nolako taberna izango den...», argi du Butronek.

Jendearen, batez ere auzokideen arduraz ulertzeko da oso, 66 Taberna askorentzat «etxeko egongela» bezalakoa izan da eta. «Egun guztian zehar izaten genuen jendea tabernan eta nik uste gure arrakastaren gako gertutasunean zegoela. Guztiek ezagutzen dugu elkar, konfiantza dago eta hemen eroso egoten ziren, nahiz eta bakarrik jaitsi beti topatzen zuten ezagunen bat hemen. Denetatik utzi digite hemen konfiantza osoz di-

«Orain 66 Tabernatik pasa eta auzoari argia falta zaio», komentatzen diote auzokideek Butroni

rua, etxeetako edota autoetako giltzak, ogasunaren paperak, fakturak, nominak... behin katu jaioberrri bat ere utzi ziguten! segituan itzuli nuen. Etxean haurrekin zegoen ama bati ere bonbona igo behar izan diot, umek bakarrik ezin zituelako utzi... Nahiko etxekoa izan da bezeroekiko harremana», gogoratu du.

Gaur egun asteburuetan afaltzera etortzen da jendea, janaurrekoa hartzera... Baina ez da lehengoko poteoa bezalakoa, oso koadrila gutxi daude jada poteatzen dutenak», argitu du tabernari ohiak. Urte haietan aitek ardoa ematen zieten seme gaztetxoak aurpegian biloa sumatu bezain laister, ohituraz. «Inoiz ikusi izan dut ardote-tara etorritako baseritar zaharren bat eta bitartean emaztea kanpoan zai eduki duenik... beste garai batzuk ziren», gogoratu du.

Lanetik atera eta isiltasun bila

66 Taberna irekita egon den urte hauetan guztietan makina bat zerbitzari eta laguntzaile pasa dira bertatik eta tabernan egunero Inauteriak zirela zirudielako zioten, gainera. «Hemendik ateratzen ginen gehien eskertzen genuena isiltasuna zen, egun guztian zehar zalaparta itzela egoten zen hemen», dio Mari Luz Estebanek, azken urteetan bertan lanean aritu dena.

Hitz egiten ari ginela telefonoa sutan dago, bazkaltzeko eskaerak, saltzaileen deiak... Taberna alklatu nahi duenik ere deitu du, baina jabeak oso argi du ez duela edozein eskutan utziko: «Jende asko etorri zaigu taberna alokatzeko prest. Oraintxe bost bat eskaintza

Tolosan ohiturak aldatzen joan dira eta aspaldi herriko gune nagusia Alde Zaharra bazen ere, bertan baitzeuden taberna eta denda gehienak, joera hau ere aldatzen joan da eta gaur egun «giroa zezen plazazur izo» dela ere esan daiteke. Ondorioz, beti izan dute lana tabernan, nahiz eta garai bateko zezen plazako apustu jendetsuak eta Berazubiko futbol partidak ikustera joateko ohitura galdu diren.

«Zezen plazan aizkora apustuak izaten zirenean jende asko gerturatzen zen tabernara, aizkolari onak bazeuden 3.000 pertsona ere gerturatzen zen Tolosara eta taberna lepo egoten zen. Berazubiko futbol partidak ikustera ere jende asko gerturatzen zen asteburuetan eta hori ere nabaritzen genuen tabernan», esan du gazteak.

Orain bizilagunen batek «auzoari argia» falta zaiola ere esan du, «lehen hemendik pasatzerakoan 66 irekita zegoen, argia zegoen, orain, aldiz, pasa eta auzoari argia falta zaiola iruditzen zait». Denbora kontua da, jabe berriak iritsi eta «auzoari berriz bizia emango diote, seguru», dio Koldok Mari Luzi begira eta malenkonia puntua ere nabari zaiola begietan.



Peruko bi emakume, atsedean hartzen; eskuinean, Argentinako glaziarrak, eta ezkerrean beheran Mozambikoko gazte baten begirada bat. AINHOA ARREGI / AMAIA ARAMENDI / ARRATE ITURBE

NEREA URBIZU

Hiru herrialde desberdin, guztiz desberdinak, bai paisaiari dagokionez, aniztasunari dagokionez, eta herriarren ezaugarriei dagokionez. Seguruenik komunean dituzten ezaugarriak, kostaldea dutela eta ederrak direla dira. Argentinaz, Peruz eta Mozambik ez ari gara, lehen biak Ertamerikan eta bestea Afrika beltzean.

Azken urte hauetan zehar Ainhoa Arregik, Arrate Iturbek eta Amaia Aramendik munduan zehar bidaiatzeko zortea izan dute eta kamerak eskuan hartuta, bisitatu ahal izan dituzten herrialde eta paisaietako irudi paregabeak lortu nahi izan zituzten: batzuk bilatuta, eta beste batzuk ia nahigabeakoak, naturalak, bertan zegoena otu zitzaielako.

Alegiako jubilatuen tabernan hilabete osoan zehar 18 argazki eder daude ikusgai, hilabetea bukatu arte. Guztietan Argentina, Peru eta Mozambike daude irudikatuta. Erakusketa honi Iparretik Hegora hankaz gora deitu diote; egia esan, ia punta batetik bestera joan dira.

Mozambike, Peru eta Argentinako bizimoduak, jendeak eta paisaiak batzen dituen argazki erakusketa dago Alegiako jubilatuen tabernan; Tolosaldeko hiru emakumek egindako argazki hauek hilaren 29ra arte daude ikusgai.

Hiru mundu iruditan

Landa eremuetako biztanleak

Argazkietan beti egokitu zaien argia errespetatu dute hiru argazkilarik hauek, ez dago tranparik, ez zuri-beltzik ez moldaketarik. Gehienbat denborari baino, espazioari garrantzia ematen dioten herritarrak ikus daitezke, zehazki esanda, landa eremuetakoak.



Ezkerrean, Mozambikoko hondartzan lanean. Eskuinean, Peruko haur bat. A. ARREGI / A. ARAMENDI / A. ITURBE

Pala txapelketarekin hasitako festak futbol partidekin jarraituko dituzte

Berastegi » Atzo hasi ziren Gazte Festak, pala eta gitarra hotsekin; gaur kirola eginez eta trikiti doinuekin emango diote jarraipena.

ERREDAKZIOA

Pala kolpeek eman zieten hasiera atzo Berastegin, hasiera, Gazte Festei. Urtarrila amaieran hasi zen pala txapelketako finalak jokatu ziren atzo arratsaldean.

Banakako nahiz binakako partidak jokatu dira. Banaka 13 lagunek hartu dute parte, eta binaka, bost bikotek. Lehendabiziko taldean, Iker Saizar eta Iñigo Belauntzarren iritsi ziren finalera, eta atzoko norgehiagokan, bigarren hau izan zen garaile. Hirugarren aldiz irabazi du berastegiarrak txapelketa hau jarraian, azken honetan, 30-14ko emaitzarekin. Binakakoan berriz, Iker Saizar eta Aritz Mujika, Julen eta Iban Agirrezabalaren aurka aritu ziren. Bigarren honetan berriz, Iker Saizar eta Aritz Mujika izan ziren garaile, 30-18ko emaitzarekin. Aipatzekoa da, aurten ere mutilek bakarrik hartu dutela parte txapelketan. Urepele elkarteko zuzendaritza batzordekoen hitzetan, «guk animatzen ditugu, baina ez dute nahi izaten».

Gauean, Garabi eta Ipar haizea taldeen kontzertua izan zen. Ha-



Binakako pala txapelketako finalean, gorriz jantzitako Saizar eta Mujika izan ziren garaile. N. URBIZU

siera batean, Mendeku itsua eta Gaueko itzalak jo behar zuten, baina azken orduko arazoak medio, ezin izan zuten etorri, eta beste bi talde hauek arduratu ziren gaua astintzeaz.

Gaur, arratsaldetik aurrera gehiago

Atzoko ekitaldien ostean, gaur arratsaldera arte izango dute berastegiarrak atsedena hartzeko denbora. Festei jarraipena emateko, 17:30etik aurrera bi futbol partida ikusi ahal izango baitira. Alde-

batetik, nesken futbol norgehiagoka izango da. Aretu futbollean bezala, bost bosten aurka ariko dira. Hala ere, 16 neskek hartuko dute parte. Hauen ostean, mutilen arteko desafioa jokatu da. 20 mutil ariko dira nor baino nor, baloiaren atzetik.

Futbol partiden ostean, indarrak hartzeko, eta festarekin jarraitzeko, herri afaria izango da Kakanen. 21:00etan izango da hau, eta 124 lagunek eman dute izena. Egunari amaiera emateko, trikiti doinuek izango dira nagusi. Beraste-

giarrak dantzan jartzeko asmoz, hor ariko dira hauspoa astintzen Trikizio taldekoak.

Hesian taldearekin kontzertua

Gazte festa hauetako ekitaldi nagusietako bat biharko kontzertua izango da. Hesian taldea entzuteko aukera izango da zuzenean, 23:15etik aurrera.

Hesian 2006ko udan sortutako talde sakandarra da. Punk-rock eta hardcore melodikoen nahasketa bat ikusten da beraien abestietan, ska kutsu bat ere antzematen dela-

» EGITARAUA

Martxoak 20, gaur

■ **17:30.** Futbol partidak: nesken norgehiagoka eta mutilen arteko desafioa.

■ **21:00.** Herri afaria izango da Kakanen.

■ **00:30.** Trikizio musika taldearekin dantzaldia.

Martxoak 21, bihar

■ **15:30.** Mus Txapelketako finala biltokian.

■ **18:00.** Kapoera dantza emanaldia.

■ **Ondoren.** Ardo eta sagardo dastaketa pintxo ez lagunduta.

■ **23:15.** Hesian taldea, Ondoren, Tximeletarekin dantzaldia.

■ **Oharra.** Gauean zehar autobus zerbitzua egongo da.

rik. Ezaugarriak aipagarriena, nahasketa oso erakargarriak sortzen duten bi ahotsak dira (emakume-mutil ahotsa).

Hitzei dagokienez, gizarte eta politika aldarrikapenak, edota sentimendu ezberdinen adierazpenak dituzte hizpide. Beraien lehen diska, *Maite dugu* izan zen eta bigarrena, duela gutxi argitaratu duten, *Herriaren oihua*.

Kontzertura joan nahi dutenek zailtasunik izan ez dezaten, Udalak autobus zerbitzua jarri du. Hala, bihar 22:30ean abiatuko da autobusa Tolosatik eta bidean dauden herrietan geldialdiak egingo ditu. Itzultzerako autobusa 04:00etan irtengo da Berastegitik, eta hau ere geldialdiak egiten joango da.

'Klarionatik sagura'-ko bidea aztertu dute Hirukidekoek

Tolosa » Urtero bezala, inguruko Eskolapioetako ikastetxeekin elkarlanean, Jardunaldi Pedagogikoak egin dituzte eskualdekoek.

ERREDAKZIOA

Hirukide ikastetxean Jardunaldi Pedagogikoak egin dituzte. Inguruko Eskolapioen sei ikastetxeek urtero antolatzen dituzte saio hauek eta aurten Tolosakoari egokitu zaio. Jardunaldiak hilaren 14an, larunbatean izan ziren.

Prestakuntza saio honetan Hirukideko eta aipatutako beste ikastetxeetako 70 irakasle inguruk hartu zuten parte. *Klarionetik sagura* leloari jarraituz eguneroko irakaskuntza-ikaskuntza jardueren Informazio eta Komunikazio Teknologien aplikazioa areagotzea hausmarketa eta esperientzia ezberdinak partekatu zituzten.

Jardunaldiak honela hasi ziren,



70 irakasle inguruk hartu zuten parte Jardunaldi Pedagogikoetan. HITZA

Konpetentzia digitala eta berrirakuntzako bidea gaiari buruzko hitzaldi batekin. Ondoren, partaideak hainbat tailerretan banatu ziren. Eskolapioen ikastetxeetan lantzen ari diren esperientzia ezberdinak ezagutzeko, Moodle plataformak, blogak eta irakasgaiak lantzeko

programa informatikoak, besteak beste.

Prestakuntza honen hurrengo pausoa orain gauzatzen ari dira, hau da, saio horietan ikasi eta ikusitako guztia beste irakasleei helaraziz eta eguneroko lanean txertatuz.

Aurrerakoek hainbat partida dituzte jokoan

Leitza » Pilota txapelketa ugari jokatzen dira asteburua; tartean, Nafar jokoak eta Emakumea Pilotari Txapelketako finala.

ERREDAKZIOA

Aurrera kirol elkarteko pilotariak agenda bete-betea dute asteburu honetan. Maila guztietakoek izango dute saioaren bat.

Hasteko, bihar, Napar Jokoe-tan, finalurrekoetan ariko dira Benjamin, infantil eta kadeteak. Norgehiagoka guztiak Leitza izango dira, 10:00etatik aurrera. Benjamin ere lehiatuko dira, baina hauek Burlatan izango dira, ordu berean.

Benjaminetan, Beñat Aitzelai eta Joanes Illarregi, Ander Alduntzin eta Joseba Eskuderoren aurka ariko dira. Infantiletan berriz, Zugarraldekoak izango dituzte aurkari, Aurrera A-ko Anartz Olano eta Ibai Barberenak. Azkenik, ka-

deteetan, San Miguel eta Aurrera C-ko Xabier Eraso eta Mikel Onsaloren arteko ikusi ahal izango da.

Beste bi txapelketa ere jokatzen ari dira alebin eta kadeteen mailan. Alde batetik, Irurtzunen, bertako txapelketako jardunaldi bat jokatuko da bihar, 10:45etik aurrera. Eskudero eta Gil ariko dira bertan. Bestalde, Zaramagako txapelketan X. Jaunarena eta Hernandorena lehiatuko dira, 16:00eta.

Emakumea Pilotari, hirugarren postua jokoan

Emakumea Pilotari Txapelketa irekiko hiru eta laugarren postuak jokatu ko dituzte bihar. Lehia horretan ariko dira Aurrerako Iera Agirre eta Saioa Aristorena. Hauek, Aristorena eta Kontin izango dituzte aurkari. Anoetan jokatuko da parti da hau, finalarekin batera. Jaialdia 16:30ean hasiko da.

Txapela bi bikote hauetako batek eskuratu du: Hedondo eta Errasti edo Diez eta Okarizek osatutakoak.

Pilota » Ez ziren oso «partida politak» ikusi Beotibarren baina Zugarraldekoak baino gehiago izan ziren.

NEREA URBIZU

VI. Berria Pilota Txapelketak badu dagoeneko finalista bat: Aurrera Saiaz, hain zuten. Tolosan bertan jokatu zuten atzo, Zugarralde nafarren aurka Beotibarren, eta etxekoak garaile izan dira 54 tanto eginez; besteek 48. Kadeteen artekoa eta jubentzen artekoa ez ziren ikusgarriak izan eta batez ere kadeteen artekoan erraz irabazi zuten etxekoak. «Orokorrean ez dira partida politak jokatu». Jende aldetik ezin kexatu, Beotibarko behoko partea beteta eta goikoa betetzear baintzen.

Kadeteen eta nagusietan Aurrera Saiazek irabazi zuten, 22-12 eta 22-14, jubentzetan, berriz, Zugarralde (10-22). Zugarralde, Jaunarena leitzarrarekin osatu du jubentzen bikotea eta txapelketa osoan zehar aritu da jokatzeko. Atzo jubentzetan Zugarralde irabazi zuten baina ez zion balio izan.

Lehen partida Aurrera-Saiazen alde, bigarrena, ordea, galduta: jokalaririk ederki penatuta eta haserrez zeuden bukatu ondoren... Apeztexea-Zinkunegi eta Jaunarena-Tainta aritu ziren jokatzeko. Azken partidaren erabakiko zen finalera joango zen taldea eta ez zuen tanteoak balioko, irabazteak baizik. Kadeteen artean Labaka-Arratibel eta Iribarren-Mayans bikoteek jokatu zuten.

Nagusien artekoa galtzen hasi ziren Renobales eta Eneko Galarraga, baina berdintzen hasi ziren

Aurrera-Saiaz VI. Berria Txapelketako finalean, kadete eta nagusiena irabazita

eta azkenean, alegiarraren eta oriotarraren alde egin zuten markagailuak. Santesteban-Azanza bikoteak ezin izan zuten Aurrera-

Zazpi-Isturrik eta Irurtzunek bihar falta den finalerdia jokatuko dute Hernanin

Saiazekin. 22-14 bukatu zen, baten batek horren aldeko apustua egin eta asmatu ere, asmatu zuen.

2004an, Berriako lehenengo txapelketan txapelkunorde izan ziren Tolosakoak, Zazpi-Isturri garaile izan zenekoa, hain juxtu. Burlatako Zugarralde, berriz, txapelkunorde 2005ean.

Zazpi-Isturri bihar, Hernanin Bihar izango da bigarren finalerdia, Hernanin, 10:30etik aurrera. Aurrez aurre, Zazpi-Isturri eta Irurtzun ariko dira. Biek ezagutzen dute Berriako finala: Irurtzungeok 2007an irabazi zuten. Parte hartu izan dutenetan itxura ona eman dute beti.

Zazpi-Isturri jokalaririk hauek kantxaratuko ditu: kadeteetan Gallurralde-Jaka, gazteetan Olaetxea-Arzelus eta Ropon-Leunda nagusien mailan. Orain arte Elurbe aritu izan da maila honetan baina kanpoan da eta aldatuta egin behar izan dute amezketarrek. Aurtengo arma sendoa kadeteetan eta jubentzetan dauzkate eta



Apeztexea, sakea egiten. Aurrera-Saiazko jubentzek 22-10 galdu zuten. ESTI EZEIZA

horiek aprobetxatuko ditu Irurtzunen aurka. Irurtzun ere indartsua da eta beraien aldetik jokalaririk onenak jarriko dituzte bihar Hernanin.

Hilaren 28an izango da Txapelketako finala, momentuz, Hernanin. 2004ko finala errepikatzen auzerik handiak daude: Zazpi-Isturri bihar irabaziz gero, aurrez aurre berriz Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Isturri izango dira eta. Beraz, amezketarrek irabaztea falta da bakarrik.



Apeztexea, partida bukatuta, haserre joan zen aldageletara. N. URBIZU

Txitxi Orbegozok egindako Roberto Jauregiren omenezko irudia jarri dute

Kultura » Usabal kiroldegia kanpoaldean jarri dute, rokodromoaren inaugurazioa aprobetxatuz.

N. URBIZU

Herenegungo Usabal kiroldegia rokodromoaren inaugurazioaren batera, Txitxi Orbegozok aurkeztutako bigarren margolana erakutsi zuten. Tolosako pertsonaia mitikoak edo bereziak hasi da irudikatzen eta oraingoan kirolarekin loturiko baten txanda zen: Roberto Jauregina, Roberto Canicas, hain zuten.

Tolosa, bere ingurua eta kirola maite zituen biziki eta ikasteko irrika beti mantendu izan zuten, bere ikasleei kirolarekiko maitasuna transmititzea bezala.

Txitxi Orbegozoren irakaslea



Alurr dantza taldekoek 'Agurra' dantzatu zuten, jende mordo baten aurrean eta irudi berriaren aurrean. N. URBIZU

izandakoa da ere. Jende askok izan du berarekin ikasteko zortea.

Zerrenda luzea omen dauka Orbegozok, beste hainbat tolosar berezi irudikatuko ditu eta Tolosan jarriko. Aurrenekoa *Pirulari* eskainitakoa izan zen. Ondoren, baten batek bertatik kendu zuten. Txitxi Orbegozok ez zuen espero la-purtzea, «baina gutxiago azaltzea».

Ekitaldira Roberto Canicasen arrea joan zen eta berak kendu zion estalkia margolanari. Bukatzeko, Alurr dantza taldekoek *Agurra* eskaini zioten.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Baseria.** Alkizan baseria alokairuan. Txukun-txukuna, bi logela, sukalde ederra, egongela eta komuna; berritua. 3 solairu ditu, bi terraza 30 m² eta 20 m² dituen. Lursaila etxe aurrean, 5.000 m². 700 euro. Telefonoa: 619 349 385.



15°
3°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 15°
HOTZENA 3°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Irteerak

■ **Albiztur.** Hilaren 28an Adunako Aburuza sagardotegira irteera autobusez, ondoren Hernanira joateko aukerarekin. Afaria eta autobusa, 33 euro. Izen-ematea, udaletxean.
■ **Anoeta.** Alkartasuna biltokiak Baztanera bidaiara antolatuta du apirilaren 16rako: kobazuloak, likore-fabrika, gaztandegia eta txokolate-gia bisitatu, ondoren bazkaria. Bazkariak eta autobusak, 28 euro (30 euro ez denarentzat). Izen-ematea, biltokian.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Barreterapia eta garapen personaleko ikastaroa martxotik maiatzera: autoestima, adimen emozionala, giza harremanak, barrea... Meditazio eta izakiaren psikologia ikastaroa martxotik maiatzera. Informazioa: 943 118 669 telefono zenbakian.
■ **Zizurkil.** Beterriko II. Bertso Txapelketaren bigarren kanporaketa Olentzo jatetxean 20:30ean bertso-afaria: Bizkaiko Azeriak eta Arabako Otsok lehiatuko dira.

Jaiak

■ **Berastegi.** Gazte Festak: 17:30ean futbol aptidak eskoletako zelaietan; 21:00etan herri afaria

Arregi jatetxean; 22:00etan Triki-zio taldearen kontzertua.

Zinema

■ **Tolosa.** *Cuscuta* filma emango dute jatorrizko bertsoian Leidor aretoan 19:30ean eta 22:30ean, zine-forumean.

Erakusketak

■ **Alegia.** Mozambique, Peru eta Argentinako argazkiak ikusgai jubilatuenan, asteartetik igandera, hilabete bukaerara arte.
■ **Hernialde.** Era guztietako argazki kameraren erakusketa, herriko ostatuan.
■ **Tolosa.** *Sida/Itesa 8 artista 8 hausnarketa* erakusketa Aranburu Jauregian.
■ **Tolosa.** *Oteiza, bizirako proiektua* erakusketa Aranburu Jauregian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5.112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Itso Oreja (Tolosa). Zorionak zure 9. urtebetetzean. Beste asko bete ditzazula. Zure familia.



Urte askoan!

Klara Arruabarrena (Lizartza). Zorionak eta urte askoan seme-alabak, ilobak eta bilobak.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

berriarekin

Munduko
ZINEMA
euskaraz

OST FILM:
Bilobak
Eskolako promesak
Gizakien seme-alabak
Eztabaida plene
Lorezin leiala

Maitasun istorioak,
zientzia fikzioa,
akzioa...
Bilobeko zinema

Otsailaren 28tik aurrera,
larunbatera, zure kioskoan BERRIAREkin

+ 4,90€

Harpideduntzat: bEduma 0504 19.40€
Eskaria egiteko: 943-29 42 45

berria

Maestro de Oz

KONTZERTUAN

APIRIK 4
24:00

→ 25€ AURRETIK → 28€ TAKILAN

SALMENTA PUTUAK: TICK-TACK-TICKET
IRUÑEKO TABERNAK: ONKI MIN / BLACK ROSE
TOLOSA: ZUNBELTZ
LEKUNBERRI: ILARGI ETA AKER

sala
muxu

Antolatzailea: **yaluna**
Laguntzailea: **DN**
DIARIO DE NAVARRA

www.salamuxu.com Lekunberri